

## «Mutilek ez dute parte hartzeko adorerik»

Urteroko ohiturari jarraituz, Piñata Igandean, hilak 9, hainbat konpartsa aterako dira Altzan. Gurea konpartsa Maite Villaron-ekin aritu gara.

Sara Soria

Hogei urte dira Gurea konpartsan lehen aldiz atera zinenetik. Asko aldatu al dira inauteriak ordutik hona?

Duela hogei urte konpartsak jendetsuagoak ziren. Gurea taldean, esaterako, garai batean 150 lagun elkartzen ginen, baina azken urteetan, 80 bat gara. Beherakada konpartsa guztietan gertatu da. Nire ustez, dirua da oztopo nagusia; jantziak jostunek egindakoak dira eta 60 euro ibalio dute. Bestalde, esan beharra dago Gurean partaide gehienak neskak direla. Mutilek ez dute adorerik parte hartzeko.

34 urterekin Konpartsan

erretiroa hartzeko asmorik al duzu?

Ezta gutxiagorik ere. Partaide gehienak 15 eta 20 urte bitartekoak dira, baina horrek ez du esan nahi gainontzekook erretiroa hartu behar dugunik. Adibidez, 70 urtetik gora dituen gizon bat 24 urtetan atera da gurekin. Beste muturrean, aurten, bost hilabeteko umea aterako da Gurean. Niri dagokidanez, alaba duela hiru urte hasi zen konpartsan parte hartzen eta orduz geroztik, are alaiago aritzen naiz.

Zeintzuk dira Altzako eta Donostiako desfileen arteko desberdintasunak?

Altzan Donostian baino



ikusle gehiago izaten da eta asko animatzen gaituzte. Donostian ikusleak hotzagoak direla esango nuke. Bestalde, Donostian seriotasun handiz aritu beharra dago, epaimahaia konpartsei begira dago eta. Dena dela, guk aurten bi sari lortu ditugu.

Urtero konpartsaaren moztorra aukeratzen duzu. Zein irizpide erabiltzen duzu?

Aurten, esaterako, sorginez moztortu gara. Kontua da ahalik eta originalen izatea, beste taldeengandik bereizteko.

Zein izan da, zure ustez, orain arte aukeratutako moztorrorik politena?

Rastafari-z moztortu ginen urtea gogoan dut: mutilak tximekin, neskak txirikordekin, eta guztiak behealde zabaleko galtzekin eta aurpegia beltzez margotuta atera ginen.

Ba al duzu ideiarik datorren urtereko?

Pailazoz moztortuta ateratzeko gogoia dut aspalditik, baina urtero beste proposamenen bat gailentzen da.



Mota guztietako pintxo hotzak eta beroak

Abuztuaren 31 kalea 13  
Tel.: 943 424965



San-Jeronimo 21 - Tel.: 943 422575 - DONOSTIA



Fermin Calbeton 3  
Tel.: 943 429875

Parte Zaharreko mokadunrik goxoena!



JOSE MARI

JATETXEA

- Euskal sukaldaritza tradizionala
- Pintxoetan aukera zabala
- Ogitartekoak

Fermin Calbeton 5 • Tel.: 943 424645

ETXANIZ  
TABERNA  
Brotxetetan adituak

Fermin Calbeton 24  
• Tel.: 943 426295